

1922-36

Jacinto Garamendi



Ceniga familiaren artxiboa

Jacinto Garamendiri bere lagun Luis Cenigak ateratako argazkia

Jacinto Garamendi Arostegi 1889ko irailaren 11n jaio zen Lekeition.

1910ean soldadutza egiteko deitu zuten baina ez dugu datu zehatzik aurkitu, bakarrik dakigu itsas armadara biderratu zutela. Saiatu gara bere espedientea Espainiako armadaren artxiboetan bilatzen baina ezinezkoa izan da ezer aurkitzea. Nautika ikasketak egin ote zituen? Nautika Eskolako artxiboan ez dago bere aztarnarik...

Ez dugu lortu jakitea non eta zelako ikasketak burutu zituen, nahiz eta jakin badakigun idazten eta irakurtzen bazekiela eta, baita, zenbakiekin oso trebea zela ere.

1922ko otsailaren 23an Rosario Arrinda Ruiz de Azuarekin ezkondu zen. Hasieran Atxabal kalean bizi ziren baina lehen semea, Ander, jaio ondoren Uribarren kaleko denda gainean erosi zuten etxe bat, hirugarren pisuan. Gero, beste seme-alaba bi izan zituzten, Arene eta Zakari.

Jacinto, 1957ko urriaren 31n hil zen Cadizen, 68 urtekin.

Erloju-saltzaile eta konpontzaile izan zen ogibidez. 1913ko martxoan zabaldu zuen Uribarren kalean euki zuen erloju eta bitxi-denda, gaur egun Tia Fran taberna dagoen lekuan.

Bere semeek kontaktzen zuten aita Jacinto oso ilustratua zela bere denboretarako, aurreratua, abila zenbakiekin. Hala, Caja de Ahorros Municipal de Bilbaoko ordezkari edo sukurtsaltzu bat ere ipini zuen dendan, eta beste gauza batzuren administrazioa ere eramaten zuen. Tresna berri edo kuriosoen errepresentazioak ere eukitzen zituen katalogotik salgai (bizikletak adibidez, txirringularitzazalea ere bazen eta).

1922ko industria-kontribuzioan lurrin-saltzaile eta argazkilaria legez ere agertzen da. Bagenekien argazkilaria izan zela, izan ere familiako hainbat argazki heldu dira gure eskuetara. Gerra aurretik Lekeition ateratako argazki asko berak ateratakoak dira. Baina oso zaila da ziurtasunez jakitea zeintzuk atera zituen berak eta zeintzuk beste argazkilaria batzuk.

Emazte Rosariok kontaktzen zuen bere dendaren atzealdean tertulia politikoak egiten zirela sarritan eta kolore guztietako politikazaleak batzen zirela. Bere seme Anderrek Ateneo zirudiela kontaktzen zuen; erlojuak konpontzen zegoela, belarria ipintzen zuela eta bere iritziak eman.

Jacinto abertzalea zen. Gora Buru elkarteak Batzokia eraiki zuenean idazkari lanak egin zituen eta kontuak eraman. Baina 1930ean Eusko Abertzale Ekintza (Acción Vasca-ANV) EAJtik banatu zenean, eszizioaren presidente izan zen Lekeition.

Jacinto 1920ko apirilaren 1etik 1923ko urriaren 2ra arte, Primo de Riveraren diktadurak kanporatu arte, Lekeitioko Udaleko zinegotzi izan zen, bigarren alkateorde hasieran eta lehen alkateorde amaieran. Antza familiaratik zetorkion politika zaletasuna, bere anai Antonio ere zinegotzia izan zen 1918ko gripearen ondorioz hil zen arte.

36ko gerraren ondorioz, 1937ko apirilean frankistak Lekeition sartu zirenean, Jacintok alde egin behar izan zuen Lekeiotik erbestera. 1940ko abenduan, atzerrian zegoela



eman zuten bere kontrako sententzia: 10 urteko erbestealdia eta 5.000 pezetako isuna, bere ondasun guztien ia erdia.

Jazinto zinegotzi izan zen garaiko aktak irakurrira, zelako pertsona zen ikus daiteke pixka bat. Orokorrean, bere ideiekin kontsekuentea zela dirudi. Bestalde, herriko bizi kulturalean ere hartzen zuen parte, antzerkietan aktore, etab.

Behin, Feliciano Beobide musika bandako zuzendari zela (1915-1921), batzorde berezi baten buru izendatu zuten Jazinto, Felicianok musikari batekin izandako gatazka konpontzeko. Jazintok, Beobide eta musika bandaren alde egin zuen beti.

Beste batean, umeez sarritan eskolara pando egiten zutela eta, isunak ezartzearen alde egin zuen. Hori bai, hutsegiteak saihesteko, komenigarria izango litzatekela maisuei esatea haurrak maitasunez tratatu behar zirela.

1921ko abuztuaren 26an berak eta beste zinegotzi batekin idatzi bat aurkeztu zuten udal artxiboa ordenatzearen alde, "ez bakarrik arrazoi historikoengatik, baita antolamendu horren bidez ekonomi aldetik lortuko lirakekeen onurengatik ere, udalerraren eskubide eta ondarearen ezagutzagatik". A ze gauza bitxia! 70 urte geroago bere iloba kargutuko zen Lekeitioko Udal Artxiboaz.

Jazinto Garamendi nire aitita zen. Ez nuen ezagutu.

Maite Garamendi Rey



Jazinto Garamendiren seme Ander aitaren dendan. Garamendi familiaren bilduma



Jazinto Garamendiren denda Urribarren kalean. Garamendi familiaren bilduma



Jazinto Garamendiren kristalezko negatiboa. Garamendi familiaren bilduma

Kristalezko negatibo horretatik ateratako postala.
Garamendi familiaren bilduma



Maiteren idatzia irakurri ondoren Jazintori buruz zertxobait gehiago dakigun arren, erantzun gabeko edo behintzat zaileko galdera batzuk ditugu.

Familiak argazki pila bat utzi dizkigu baina ezin dugu baieztatu bereak diren ala ez, hain zuzen ere, denda izan zuelako eta bezeroen argazkiak ere errebelatuko zituelako¹.

Horregatik ez dugu uste utzi dizkiguten argazki guztiak berak ateratakoak direnik, baina bai gehienak.

Udalaren kontuen artean aurkitu ditugu haren faktura batzuk: batean jakin dugu berak eta Ojanguerenek elkarrekin egin zutela lan Pascual Abaroaren monumentuaren inaugurazio egunean; beste batean, 1931an, ezpatadantza bateko argazkia ordaindu ziola udalak... Ojanguerenengana bueltatuz, ezagutzen dugu Sanantolinetako argazki bat Ojanguerenek egin dakotzakoa, baina Martinez idazkariak 1933ko memorian Jazinto Garamendirena zela dioena -txosten horretako lehen udaletxe errepublikarraren argazkia ere Jazintoren da (ikus 83. or.)-. Txiripaz gure eskuetan amaitu du Sanantolinetako argazki horrek gure lagun Koldo Lenizek² aspaldi erosi zituen Lekeitioko kristalezko negatiboen artean.


Bestalde, familiak utzitako argazkien artean gutxienez postal bi eta jatorrizko kristalezko negatiboak aurkitu ditugu. Jazintoren kristalak badira, eta badi-rudi hala dela, orduan, Garavillatarren antzean, argazkiak postal bihurtu zituen, ez dakigu bere kabuz ala etxeren batekin. Zenbat argazki eta postal ote dira Jazintorenak eta guk ezagutu ez? Zenbat lan gertatzen zaigun egiteko!

Amaitzeko mila esker Maiteri eta familiari laguntza eta argazkiengatik.

¹ Jazinto Garamendiren argazkien artean hiru argazki aurkitu ditugu Ceniga medikuaren albumean ere aurkitu ditugunak. Garai ezberdinetakoak dira, 1914, 1925 eta 1935ekoak. Norenak ziren? Cenigarenak izango zirelakoan gaude baina...

² Eskerrak eman nahi dizkiogu Koldori eta bere antzean han eta hemen euren poltsikotik ordainduta argazki, postal, dokumentu... erosten dabiltzan guztiei. Denon artean apurka-apurka... SLOW CITYn ea zeezer lortzen dugun.





Lekeitioko antzar eguna, Jazinto Garamendi, 1931-32 aldekoa. Koldo Lenizen artxiboa (ikus 308. or.)



Pascual Abaroaren monumentuaren inaugurazioa, 1934-9-7. Indalecio Ojanguren, AGG-GAO_OA2285



Egun horretan atera ziren argazkien faktura. LUA